

# BASKEPENSIONES 15 GAPI

## INBERTSIO POLITIKA

Arriskurik gabeko aktiboekin lortu daitekeena baino errentagarritasun handiagoa nahi duten inbertsio-profil kontserbadoreko pertsonentzat. Horretarako, inbertsioaren zati bat, gehienez % 15, errenta aldakor nazional eta nazioartekora bideratzen da.

## 2019/10/31ra Errentagarritasunak UTB

1 hilekoa*	3 hilekoa**	Urtekoa*	Urte 1	Urte 3	Urte 5	Urte 10
%-0,11	%0,28	%5,89	%4,59	%1,06	%0,62	%1,95

\*Urtebete baino epe laburragoak diren errentagarritasunak ez dira urtekotzen.

2019	2018	2017	2016	2015	2014	2013
%5,89	%-4,40	%1,65	%1,05	%-1,34	%5,38	%6,57

\*Iraganeko errentagarritasunek ez dute garantizatzen etorkizuneko errentagarritasunik.

## 2019/10/31ra Estatistikak

Lurrunkortasun 1 urte**	%2,18
Lurrunkortasun 3 urte**	%1,96

\*\*Epealdiko eguneroko hegazkortasuna edo azken aldiz inbertsio politika alda zenetik, epe hori, laburragoa balitz.

## HILEKO IRUZKINA

AEBren eta Txinaren arteko akordio partzialaren azaroko iragarpenak baikortasuna eragin zuen merkatuetan. Gerra komertzialarekiko tonu hobeak jardueraren datuei nolabaiteko oinarria eman zien, Europan bereziki, non oraindik ere ahulak jarraitzen duten izaten. Horren inguruan, FMLak ezagutzera eman zituen 2019rako aurreikuspen berriak, zeinak mundu mailako hazkuntzaren beherakada islatzen zuten, % 3koa, uztailan % 3,2 izan bazen ere. 2020Rako, % 3,4ko aurrerapena aurreikusten du, eta merkataritzaren tentsioak gogortuko ez direla edo Brexit gogorra izango ez dela ontzat hartuz, dirudienek aukera hori aldentzen ari baita. Johnsonen eta EBren artean adostutako irteera akordioaren baldintzak onetsi bazen ere, ez zen gauza bera


gertatu britainiar legearen transposizioarekin. Ondorioz, alderdi kontserbadorearen liderrak epearen luzapena eskatu (EBk 2020ko urtarrilaren 31 arteko luzapena onartu du), eta hauteskundeak abenduaren 12ra aurreratu behar izan zuten, Brexitaren inguruko paralisia desblokeatzeko aldera. Gertakari geopolitikoetatik at, Draghi agur esan zion BCEren presidentziari. Lagardek hartzen duen politika monetarioaren alborapena oso moldakorra jarraitzen du izaten; baita FEDekoa ere. Merkatuak espero zuten bezala, entitate amerikarrak berriz ere jaitsi zituen interes tasak urtean hirugarren aldiz (% 1,5-1,75 arte). Izan ere, jaitsiera prozesuan eten bat izan zitekeen, baina egungo hedapenari eusteko beharko

den guztia errepikatzen zuten. Merkatuei dagokienez, hilaren hasieran murrizketak egon baziren ere, indizeak berriz ere hurbiltzen zozten urteko maximoak, eta % 20tik gorako balio areagotzeak lortu zituzten. Txinaren eta AEBren arteko jarreraren hurbilketa, Brexitaren inguruko zalantza arintzeaz eta banku zentralen laguntzaz gain, enpresen hirugarren hiru hilekoaren emaitzak ezagutzera ematen hasi ziren. Une honetara arte, emaitza espero baino hobeak lortzen ari dira, denboraldiaren hasieran merkatuak egindako aurreikuspenen jaitsiera handien ondoren. Izan ere, hilaren bukaeran Eurostoxx-ak ia % 1ko hobekuntza izan zuen, S&P 500 indizeak % 2, eta Nasdaq indizeak % 4. Joera positibo bera izan zuen japoniar


burtsak, % 5 baino gehiagoko igoerarekin, eta baita emergenteen indize globalarentzat, % 4ko igoerarekin. Errenta finkoan, arriskuari beldurra jaisteak Europako zor publikoa berriz saltzea eragin du. Hortaz, 10eko bonu alemana irailako minimoetatik aldentu zen eta, hilaren bukaeran, -% 0,41ren errentagarritasuna ematen zuten, oinarritzko 26 puntu nabarmendu ondoren. Era berean, Espainiako zorrak ere gora egin zuten, nahiz eta alemaniarra baino gutxiago. Ondorioz, arrisku prima 7 puntutan estutu zen. Amerikako merkatuan, FEDaren tasak jaitsiko zirela uste izateak tesoroaren zorra hobetu zuten epe laburrean, errentagarritasuna jaitsi zelako. Europan bezala, tasen igoera izan genuen, nahiz eta hain handia ez izan.

## EZAUGARRI OROKORRAK


Ondarea:	2.879.249.329,89
Komisioak guztira:	%1,60
Harpidetza komisioa:	%0,00
Errenboltso Komisioa:	%0,00
Arrisku-profila:	Baxua
Inbertsiorako gutxienezko epea:	-



## Zorroaren banaketa



## Errenta aldakorreko zorroaren banaketa geografikoa



# BASKEPENSIONES 15 GAPI

## BASKEPENSIONESEN ONURAK:

- Aurrezteko finantza-tresna, zure etorkizuneko pentsio publikoa osatzen laguntzeko.
- Nahi duzun eta ahal duzun moduan aurrezteko malgutasun osoarekin.
- Inbertitzeko politika desberdina duten Baskepensiones desberdinen artean zure aurrezkia askatasunez mugitzeko aukera, zure profilaren arabera hobeto egokitzeko.
- Konfiantza Kutxabanken. Epe luzerakoak izan daitezkeen eragiketetan garrantzitsua da.
- Onurak Kutxabankeko beste produktu batzuetan (gordailuetan, maileguetan, eta abarretan).

Eta gainera, banakako BGAE denez, **PFEZaren Zerga Oinarria murrizten duten ekarpenetarako zerga-tratamendu onenaz balia zaitzke.**

## BASKEPENSIONES 15 PLANAK HONAKO ONURAK DITU:

**KUDEAKETA PROFESIONAL AKTIBOA**, inbertsioak merkatuen inguruabarretara egokitzeko. Eta **OROKORRA**, dibertsifikazio geografiko eta sektorialarekin.

**ARRISKUAREN KONTROLA.** Aktiboen analisi eta jarraipen etengabea egiten dugu errentagarritasunaren eta arriskuaren arteko oreka onena lortzeko.

**EGUNEROKO JARRAIPENA**

Espainiako ondare-kudeatzaile nagusietakoaren **ESKARMENTU ETA KALITATEA** (Kutxabank Gestión).

**ZEURE  
B  
PLANA  
BASKE  
PENSIO  
NES**  
BANAKAKO BGAEa  
Kutxabank SA  
Bazkide sustatzailea.  
Kutxabank Gestión  
IKESK SAU Ondare  
Kudeatzailea.



## PROBA EZAZU ERRETIRORAKO GURE SIMULAGAILUA.

Zure egoerari buruzko banakako txostena prestatuko dizugu. Simulagailuarekin zenbateko pentsioa kobratuko duzun, erretiroa hartutakoan bizimoduari eusteko zenbat aurreztu beharko duzun eta zure beharrianetara zein plan hobeto egokitzen zaizun kalkulatu ahal izango duzu.

Hasi etorkizuna planifikatzen,  
Baskepensioneseekin:  
**SIMULAGAILUA**